



Hemen da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako **finala!**

Maiatzaren 9an abiatu zen Gipuzkoa Bertsoan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea, 74 bertsolariarekin. Sailkapen fasearen ostean, irailaren 20an martxan jarri zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, 43 bertsolariarekin. 14 saio jokatu dira eta soilik finala falta da.

Zortzi bertsolari igoko dira hilaren 19an Donostiako Ilunbeko oholtzara eta horietatik aterako da Gipuzkoako txapeldun berria. Saioa 17:00etan hasiko da eta bi aurkezle izango ditu: Saroi Jauregi eta Ion Zaldua.

Honako lana da bertsolariak finalean egin beharko dutena:

- Binaka, gaia emanda, zortziko handian, hiruna bertso.
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian, hiruna bertso.
- Bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian, hiruna bertso.
- Binaka, gaia emanda, hamarreko txikian, hiruna bertso.
- Kartzelako lana: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

Buruz burukoa

- Binaka, gaia emanda, puntutan, zortziko txikian, zortzi bertso osatu arte.
- Binaka, gaia emanda, sei puntuko motzean, hiruna bertso.
- Kartzelako lana: bakarka, gaia emanda, nahi den doinu eta neurrian, hiruna bertso.

Finalerako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Ohi bezala, Elkarteko bazkideek prezio berezia duzue sarreran, 15 euro. Gaztetxoan sarrera 10 euroan da, eta gainerakoena 20 euroan.

Informazio praktikoak

Abenduaren 19ko finalari begira, hainbat informazio garrantzitsu jakinarazi nahi ditu Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak:

- Aretoko ateak 15:30ean zabalduko dira.
- Internetez erositako sarrera guztietan agertzen da aretora zein atetik sartu behar duzuen (3 edo 10A ateak). Salmenta guneetan sarrera erosi duzuenek, berriz, 1. atetik sartu beharko duzue.
- Hala ere, behin aretoan sartuta, bertsozaleek batetik bestera mugitzeko aukera izango duzue, baita nahi duzuen lekuan esertzekoa ere.
- Mugikortasun arazoak dituzuen pertsonen beharrak behar bezala kudeatu ahal izateko (aparkalekua, aretoan kokapena...) aurrez joango zaretela jakinaraztea eskertuko genuke, gipuzkoa@bertsozale.eus helbidean.
- Ohi bezala, finalera joateko garraio publikoa erabiltzea da gomendioa.
- Herrietatik autobusen bat antolatuta behar baduzue, mesedez Gipuzkoako Elkarteari jakinarazi, horientzako aparkalekuak modu egokian koordinatu ahal izateko.



Orain dela lau urteko Ilunbeko finala.//XDZ



**AMETS
ARZALLUS ANTIA**
Auritz, 2015-X-31

Gaia: Lehen aldiz emakumeek dantzatu dira San Joan bezperan. Etxeko balkoitik dantzan aterako den bilobarri begira ari da.

Ez dakit zenbat urte joan diren baina gauzak hala gerta lehen mutikoak aritzen ginen jauzika eta lasterka. Ta orain berriz zorionean errotak hartu du buelta neskei gertatzen zitzaaien horrek beti deitu dit arreta: sekula dantza egin ezin ta hanka azpiak erreta.

Bilobatxoa hor ikusten dut bere lagunak peskizan oraindik ez da hain haundia ta bere lotsaren gerizan. Su horren jiran garai batean neu ere ibili nintzan jantzi galtza edo jantz zazu gona ez zaitela uzkur izan eta ahal bada eragiozu sua itzaltzeko gisan.

Neuk ere neure mugak baneuzkan bizi nintzen neure trazan baina halere dena ezin nuen zegoen bezala jasan. Sanjoan bezpera gertatu zaigu eta a ze festa plazan! Neska-mutilak ari elkarrekin goza ezazue dantzan San Joan egunez esan dezagun "Istori hura juan zan".

Martxan da **Bertsotruk** egitasmoa

Helduen bertso-eskolen arteko harremanak sustatu asmoz antolatu da Bertsotruk egitasmoa. Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak jarri du abian eta 26 bertso-eskolek eman dute parte-hartzeko izena. Bertso-eskola horiekin hiru taldeko multzoak osatu dira; guztira, bederatzi multzo. Azaroaren amaieran hasi zen Bertsotruk eta 2016ko maiatzaren bukaeran amaituko da.

Bertsotruken, bertso-eskola bakoitzak bere multzoko beste biak hartuko ditu etxean, eta beste bi herrietako bertso-eskolek antolatutako ekitaldietara joango da. Emanaldia edozein motatakoa izan daiteke: bertso-saio formala, bertso-bazkaria, bertso-antzerkia, bertso-jolasen bat...

Bertso-eskolak beraiek arduratuko dira euren saioen berri emateaz: agenda Xenpelar Dokumentazio Zentroaren Bertsolaritzaren Datu-Basea atariaren bitartez, eta saioen nondik norakoak Bertsoa atariak jasoko ditu.

9 multzo, 26 bertso-eskola

-ALBE - Debagoiena - Lesaka

-Barañain - Durangaldea - Zarautz

-Mungia/Larrabetzu - Oñati - Sakana

-Gernika-Lumo - Harituz - Lekunberri/Leitza

-Enkarterri - Erriarraitz - IEH

-Agurain - Gabiri - Lasarte-Oria

-Aramaio - Hernani - Zumarraga/Urretxu

-Goierri - Kakiturri - Txingudi

-Markina-Xemein - Orio



Agurainen egin zuten Bertotruk ekimenaren aurkezpena.//XDZ

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, motorrak berotzen

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Talde Antolatzaila hasita dago 2016ko Txapelketaren antolakuntzagaz. Taldeak adostuta, hurrengo izango da datorren urteko Bizkaiko Txapelketa izango duen egitura:

- Udabarriko fasea: apirilean eta maiatzean
- Udazkeneko fasea: urritik abendura

Udabarriko fasean izena emateko epea amaitu da. Orain arte eskualdeen formatuagaz funtzionatu izan badu ere, hemendik aurrera hasieratik hasiko dira bertsolari guztiak Bizkaiko Txapelketan.

Talde Antolatzailak lehenengo fasea diseinatzeko dihardu orain.

Antzerkia, kantua, literatura eta bertsolaritza uztartzen dituen egonaldia, urtearen amaieran

Ahots baten sormen egonaldia egingo da abenduaren 26tik 30era Zestoako Sastarrain baserri eskolan. 15-18 urteko 30 gazte elkartuko dira bertan, alor ezberdinetatik datozenak: antzerki eskolatatik, kantagintzatik, literaturatik zein bertso mundutik etorriak. Helburua gazteek harreman sareak egin eta beste adierazpideekin gozatzea da.

Egun bakoitzean adierazpide bat landuko da, eta alor horretako sortzaile bat etorriko zaie bisitan aterpetxera, arratsaldeko ekintzak egin eta gaubelan parte hartzera. Ipuingintzaren egunean Beatriz Egizabal izango dute lagun, antzerkia lantzeraz Eñaut Gantxegi etorriko da, kantagintzaren egunean Mikel Markez, eta bertsolaritza lantzeko Andoni Egaña eta Uxue Alberdi. Horrez gain, begirale talde ederra dute: Esti Alberdi, Ane Labaka, Hodei Unzueta, Itxaso Paia eta Eñaut Asurabarrena.

Egonaldi berezi hau 2015eko Euskal Herriko Eskolartekoaren sari nagusia da. Mintzolak antolatutako ekimena da, honako elkarteekin lankidetzan: Ikastolen Elkartea, Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkartea, Euskal Kantuzaleen Elkartea eta Bertsozale Elkartea.

Bertso Egunerako sarrerak salgai, hilaren 22an

Urtarrilaren 30ean, hileko azken larunbatean, Bertso Egunaren edizio berria egingo dugu. Azken urteotan bezala, Donostian ospatuko dugu eta egun osoko egitaraua izango da. Horretarako, hiru lantalde ari dira mimo handiz goizeko, arratsaldeko zein gaueko programazioak prestatzen.

Urtarrileko Bertsozalean jasoko duzue Bertso Egunaren inguruko informazio zehatza, baina dagoeneko aurrera daiteke zerbait: afaria Kursalen egingo dugu, garai batean egiten zen leku berean.

Bestetik, sarreren salmenta abenduaren 22an abiatuko da www.bertsosarrerak.eus webgunean. Urtarrilaren 6a bitartean bazkideek lehentasuna izango duzue ekitaldirako eta ondoko afarirako sarrera hartzeko orduan. Tarte horretan zuen bazkide sarreraz gain, bazkide ez den beste pertsona batentzat ere eros dezakezue sarrera.



Egun osoko egitaraua eskainiko du Bertso Egunak.//XDZ

Azarotik maiatzera, *Zortzi Puntutan* ekimena egingo dute Bizkaian

Bizkaiko Bertsozale Elkartek bultzatuta, abian da *Zortzi Puntutan* egitasmoa Bizkaiko eskualdeetan: eskualde bakoitzak bere neurria diseinatutako bertso-jaiak.

Azaroan hasi dira goiztiarrenak, eta maiatzera bitartean antolatuko dira. Antolakuntza eta formatua eskualdeen esku geratuko da, hau da, eskualdeek erabakiko dute euren etxerako zein den formaturik egokiena. Horren arabera diseinatuko dute eskualdeko eguna: batzuek txapelketak antolatuko dituzte; besteek, girotze saioak.

Ekimenaren helburua eskualdea girotzea eta bertsogintzaren oinarria sendotzea da. Txapelketara joango ez direnentzako bestelako plaza bat izango da, eta joango direnentzako entrenamendu aproposa. Ez da Bizkaiko Txapelketarako puntuagarria izango.

Goiztiarrenak Busturialdekoak izan dira, Busturialdeko Bertsolari Txapelketa antolatu dute. Kanporaketak jokatu dituzte eta abenduaren 12an izango da finala. Lea-Artibaik girotze saioa prestatu du egun bererako. Bertan 2016an Txapelketan lehenengoz parte hartuko dutenekin prestatu dute eskualdeko jaiak.



Puntua jarrita

AITOR SERVIER ETCHECHURI

Bertsolaritzak hegemonikotik eta periferiatik zenbat duen, bertsolaritzaren erdigunean zenbaterainoko lekua duten ertzek, honako galdera korapilatsuak egin dizkidazu, Ane. Zure puntuan, galdera hauei goitik beherako erantzuna eman diezunez, ez da lan makala izanen ene gogoetekin eztabaida elikatzea.

Zure baimenarekin bertsogintzan zentratuko naiz, bertsolaritzaren mugimenduaren azterketa hurrengo baterako utziz. Bertsogintza ertzean kokatuko dut zalantza handirik gabe, soiltasuna eta prekaritatea ez direla erdiguneko erosokeria eta burgestearekin ezkontzen.

Lehen begiratuan, periferiako bertsolaria izan naiteke nihaur eta berariaz ene bertsokera ere halakoa dela pentsa dezakegu. Azkaindarra, gaztea, euskaldun zahar-berria, saio gehienak euskara hegemonikoa ez den lekuetan burutzen dituen. Haatik, ezaugarri hauei mendebaldeko gizon zuria izatea edo ezker abertzalekotzat identifikatzea kontrajartzen badiegu, baliteke, Angel Errok zion antzeratsu, hegemonia eta subalternitatea gurutzatzea ene baitan.

Zenbatetan izan naiz bertsotan pentsaera hegemonikoaren euskarri? Zenbatetan izan dut sistemaren oinordetza ideologikoa bat-bateko jauzirako sare bakar? Guziok gara noizbait zapaldu eta zapaltzaile. Egiari zor, usutan izan dut zapalduen ahots izaten saiatzeko tentazioa, garai bateko bertsolariek ez baitzioten alferrik herriaren zerbitzura zeudela. Baina pertsonala ere politikoa da, ezta?

Puntua itsasoz bestaldera igorriko dut. Aspaldiko, Maddi Sarasua, ziur naiz Irlandako zure talaiatik ikuspegi egokia izanen duzula, gure bertsolaritzaren munduko arrangura ttikiei so egiteko. Zure bizipenez galdegin nahi dizut. Nola kudeatzen du norberak bertsolaritzaren duen harremana? Noiz da eder eta noiz mingarri bertsogintzan buru-belarri sartuta egotea?

Koplak

Arabako Bertsozaleren edizio berria

Arabako Bertsozale Elkartek 2008an jarri zuen martxan Araba Bertsozale ekimena. Helburu nagusia bertso saio gutxi egiten diren lekuetan bertsozaletasuna zabaltzea da. Formatu txikiko bertso saioen bitartez edo bertso-tailerrak eskainiz egiten dute. Udazken honetan Araba Bertsozaleren barruan 14 saio egin dituzte Arabako hainbat herritan.

Poto-Finixa



Sardinian, bertsolaritzaren berri ematen

Instituto Etnografico Della Sardegna erakundeak antolatuta, *Atòbius in Rima* kulturarteko topaketa egin berri dute Sardinian, eta bertan Mintzola Fundazioak hartu du parte. Hain zuzen ere, azaroaren 27an eta 28an izan ziren. Bertan bi bertsolari izan ziren, Oihana Bartra eta Igor Elortza, eta Sardiniako cantadoriekin batera emanaldia egin zuten. Horrez gain, Karlos Aizpuruak bertsolaritzaren inguruko hitzaldia eskaini zuen.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Talio Soto eta Fernando Anburtoy

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPULA NAIBATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO ANBURTOY